

# ABC Susperketa

---

## Lehenengoa...

1. Larrialdi momentu batean **alarma oihua** egin behar dugu:
  - ▶ **112** zenbakira deituaz (Nazioarteko SOS zenbakia)
  - ▶ **943 46.46.22** zenbakira deituaz (DYA Gipuzkoako larrialdietarako koordinazio zentrua)
2. Ondoren egin beharrekoa aurkitzen garen eszenatokian **biktimak nahiz geuk arriskurik ez dugula izango bermatzea da** (suak erretzea, lur jauziak harrapatzea, toxikoa den ingurunean egotea ...) Susperketa ingurune egokian egin behar da.
3. Aurrekoa bete ondoren, **biktimaren egoera** zein den **baloratu** behar dugu.



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

---

## Biktimaren egoera baloratzea

Hasteko **KONORTERIK** baduen baloratuko dugu.

- ▶ Ozenki galdetuaz “zer gertatzen zaizu?”
- ▶ Sorbaldak mugituaz kontu handiz.

1. Aurreko estimuluei erantzuten badie, **KONORTEA** baduela dakigu. Kasu honetan:

- ▶ Segurtasun gorputz jarrera batean jarri.
- ▶ Laguntza zerbitzuak iritsi arte bere alboan egongo gara egoera kontrolatuaz.




**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## A – Arnas bideak irekitzea

2. Pazienteak erantzuten EZ badu, **KONORTERIK GABE** dagoela jakingo dugu. Kasu honetan:
  - ▶ **Arnas bideak irekiak dituela** baieztatuko dugu.
  - ▶ **Arnasketa** frogatuko dugu.
  - ▶ **Kokots-kopeta maniobra** egingo diogu arnas bidek irekiak daudela bermatzeko. Ondoren, arnasik hartzen duen ala ez frogatuko dugu.



*Kokots-kopeta maniobra egiteko esku bat kopetean jarriko dugu burua atzeruntz botatzeko eta 2. eta 3. behatzak berriz kokotsean beratu goruntz eramateko.*



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

---

## B – Arnasketa frogatzea

Arnasik hartzen duen frogatzeko gure masaila biktimaren aho parean jarriko dugu:

- ▶ Bularra mugitzen den **IKUSTEKO**.
- ▶ Ahotik edo sudurretik airerik ateratzen den **ENTZUTEKO**.
- ▶ Biriketarik ateratzen den airea gure masailan **SENTITZEKO**.

Biktimak:

- ▶ **ARNASA HARTZEN BADU: Albokako segurtasun posizioan** jarriko dugu. (aurrerago adieraziko dugu nola)
- ▶ **ARNASIK HARTZEN EZ BADU:**
  - **Ahotik ahora** bi putz egingo dizkiogu edo ahotik aho-sudurrera haur txikia denean
  - Bularraldeko konpresioak egiten hasiko gara.



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## Ahoz ahoko aireztapena

Ahoz ahoko aireztapena egiteko lehenik eta behin kokots-kopeta maniobra egina izango dugu eta ondoren:

- ▶ Gure ezpainekin biktimaren ezpainak bilduko ditugu erabat itxiaz.
- ▶ Bere sudurra 2 behatzekin itxiko dugu.
- ▶ Putz egingo dugu airea bere biriketetan sartzeko eta begirada bidez bere bularra altxatzen den edo ez ikusiko dugu **(Bi aldiz)** Bi putzaldien artean, sartutako aireari ateratzen utzi behar zaio.



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## C – Bularreko konpresioa

Bularreko konpresioak emateko teknika “**bihotz masaia**” bezala ere ezaguna, ondoren adierazten den moduan egiten da:

- ▶ Biktima azalera gogorraren gainean jarriko dugu buruz gora, hanka eta besoak luzatuaz.
- ▶ Konpresioaren puntua aurkitu behar da. Bularrezurren erdian dago, titiburuak batzen dituen lerroaren azpian.
- ▶ Puntu horren gainean jartzen da esku baten orpoa, eta ondoren bestea. Bi eskuetako hatzak elkarrekin lotzen dira.



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## C – Bularreko konpresiak (2)

- ▶ Gure besoak guztiz zuzen izanik eta biktimaren bularrarekiko 90ºra, gure pisua bere bularraren gainera erortzen utziko dugu 3,5 - 4 zm jeitsiaz bere bularra.
- ▶ Maniobra hau minutuko 100 aldiz egin behar da ahoz ahoko 2 insuflazioekin tartekatuz. Jarraitu beharreko erritmoa **30 konpresio eta 2 insuflaziokoa da.**
- ▶ Konpresioa egin ondoren bularraldeari hasierako posizioa hartzen utzi behar zaio.
- ▶ Sendagile laguntza iritsi arte jarraitu edo bestela nekatu arte.




**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## Prozesu osoaren laburpena



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## Albo bateko Segurtasun Posizioa

Paziente bat albo bateko segurtasun posizioan jartzeko 3 pauso jarraituko ditugu:

1. Patrikak hustu eta betaurrekoak kendu. Guregandik gertuen dugun biktimaren besoa bere gorputzetik aldendu 90ºtara tolestuaz sorbalda eta ukondoa..



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## Albo bateko Segurtasun Posizioa (2)

2. Urrunen dugun hanka belaunetik tolestu eta oina lurraren kontra utzi. Belaun honen azpitik eta alde bereko sorbaldatik heldu. Gure aldera buelta eman..



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22

# ABC Susperketa

## Albo bateko Segurtasun Posizioa (3)

3. Arnas bideak ireki eta masaila goian geratzen den eskuaren kanpokaldearen gainean jarri..



**DYA**  
GIPUZKOA

**943**  
46 46 22